

**OBJET :** Mintzalasai #2018 – Participez à la 7<sup>ème</sup> édition.

**GAIA:** Mintzalasai #2018 – 7. edizioan parte hartu.

Adiskidea,

Baiona-Angelu-Miarritze hiri-eremua euskararen berreskuratzeko lurralde estrategikoa da. Egunero, eragile anitz euskara irakaskuntzan eta transmisioan lanean ari dira, baina bide zaila eta luzea dute. 2017ko azaroan, 800 pertsona baino gehiagok euskararen erabilpena sustatzeko erronka kolektiboan parte hartu zuen (BAM). Euskararen aldeko dinamika berritzaile horrek agerian eman zuen elkartuz beti azkarrago eta eraginkorrago girela.

2012az geroztik, Mintzalasai elkarteak hiriko ingurumenean euskara errotzeko lanean ari da, xumeki eragileak batuz eta konkretuki eraginez. Azken edizioak gaitzeko arrakasta ukan zuen ere:

- 6850 parte hartzaile,
- 75 jarduera antolatuta,
- 45 egitura mobilizatuak,
- 6 asteko iraupena.

Mintzalasai gertakarien 7. edizioa 2018ko irailak 1 larunbatetik 30 igandera iraganen da, besta herriko eta aldarrikatzailearekin Marion aintziran.

Tailer, ate irekitze, inimizazio, ikuskizun, bisita gidatu... euskara partekatzeko parada ezin hobe izanen da hilabete osoan zehar. Denbora berean, eragile bakoitzak bere lana agerian ezartzen ahal du aktibitate berritzaile eta parte hartzaileak proposatuz. Azkenik, Mintzalasai beroketa ezin hobe izanen da Euskal Herriko hiztun guztiak mobilizatuko dituen Euskaraldia ekimena aitzin (azaroaren 23tik abenduaren 31ra Ahobizi eta Belarriprestak aktibatuko 11 egun).

Horiek hola, gure gogoak ez da tokiko elkarten paisaian eragile berri bat izatea, baizik eta euskararen normalizazioan eragin nahi duten guztiaren espazio partekatua izatea.

Gaurkoan beraz elkarrekin lan egiteko gomita luzatu nahi dizugu.

Madame, Monsieur,

Le BAB est un territoire éminemment stratégique dans la réappropriation de la langue basque. De nombreux opérateurs de terrain œuvrent au quotidien à l'apprentissage et la valorisation de l'euskara, mais le contexte urbain complique beaucoup la tâche. En novembre dernier, plus de 800 locuteurs.rice.s s'engageaient dans un défi collectif autour de son usage (BAM), preuve qu'en s'associant on est toujours plus forts et plus créatifs.

A sa modeste échelle, depuis 2012 l'association Mintzalasai tente de fédérer et d'agir concrètement en direction du ré-enracinement de l'euskara au BAB. La dernière édition rencontra un franc succès :

- 45 structures mobilisées,
- 75 activités organisées,
- 6.850 participant.e.s.

La 7<sup>ème</sup> édition débutera le samedi 1er septembre et se terminera le dimanche 30 avec une grande fête populaire et revendicative au Lac Marion.

Tout au long du mois, les locuteurs et apprenants auront l'occasion de partager l'euskara grâce aux ateliers, portes ouvertes, initiations, spectacles et visites guidées. En parallèle, chacun pourra mettre en avant son travail en proposant des activités innovantes et participatives. Enfin, Mintzalasai fera office d'échauffement avant Euskaraldia qui mobilisera les locuteurs (Ahobizi et Belarriprest) de l'ensemble du Pays Basque du 23 novembre au 3 décembre 2018.

Pour autant, Mintzalasai n'ambitionne pas de devenir un acteur de plus dans le paysage associatif, mais plutôt un espace partagé de toutes celles et ceux qui souhaitent contribuer à leur niveau à la normalisation de l'euskara. C'est donc une invitation à travailler ensemble que nous souhaitons vous adresser aujourd'hui.

Horren aipatzeko, deneri irekia den bilkura publiko batera gomitatzen zaitugu.

Nous vous invitons donc à venir discuter de tout cela lors d'une réunion publique ouverte à tou.te.s :

**2018ko apirilaren 5a, ostegunarekin,  
18:30etatik 20:00etara  
Baionako Elkarteen Etxean (Glain)**

**Jeudi 5 avril 2018,  
de 18h30 à 20h  
Maison des associations de Bayonne**

## AIPAGAI ZERRENDA:

### **Atarikoa (20mn)**

- Mahai itzulia: aurkezpenak.
- Mintzalasai: elkarteak – egitasmoak – historikoa – programazioa.

### **Lanketa (40mn)**

- Taldekako lana: aktibitate proposamenak, ideia eroak, hobekuntza pistak.
- Bateratzea: egitarauaren aitzin-gasta.

### **Segida (20mn)**

- BABko egituren esku diren hizkuntza baliabideak (agenda interaktiboa, Besta euskaraz kita...).
- Eztabaidak, galderak.

Zuekin kondatzen dugu.

## ORDRE DU JOUR :

### **Point préliminaire (20mn)**

- Tour de table : présentation de chacun.e.
- Les bases de Mintzalasai : l'asso – le projet – l'historique – la programmation.

### **Travail technique (40mn)**

- Travail en groupe : propositions d'activités, idées folles, suggestions d'amélioration.
- Restitution : ébauche de programme.

### **Suite à donner (20 mn)**

- Présentation des outils linguistiques au service des structures du BAB (agenda interactif, kit Besta euskaraz...).
- Discussions, débats, questions.

Nous comptons sur votre présence.


Co-Présidents – Lehendakari ordeak



**UHAINA AZPEITIA**



**KEPA MOUESCA**



**JON UNHASSOBISCAY**